

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

265/2019 Foru Agindua, ekainaren 4ko. Onespena ematea Santiagoko 2019ko Azokan erakusle edota saltzaile gisa parte hartu nahi duten nekazari eta abeltzaintzako deialdi publikoko oinarriei

Ekainaren 5eko 255/2018 Foru Aginduaren bidez, Santiagoko Azokan erakutsiak edo salduak izan zitezten foru aginduan bertan jasotzen ziren betekizunak betetzen zituzten erakusgaien edo salgaien deialdi publikoaren oinarri arauak onetsi ziren. Azoka hori Gasteizko unibertsitate campusean egin zen, 2018ko uztailaren 25ean.

Sail honek asmoa dauka 2019ko uztailaren 25ean Santiagoko Nekazaritza Azoka tradizionala egiteko. Azoka egitearen helburu nagusiak hauek dira: hiri inguruko biztanleei Araban lantzen, hazten, egiten eta transformatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen ugaritasuna eta aberastasuna erakustea, landa eremuak garatzeko orduan nekazariak eta abeltzainek duten garrantzi soziala baloratzea, eta Arabako ingurune naturala babestea eta gordetzea.

Tokiko ekoizpen tradizionala defendatzeko eta berreskuratzeko helburu hori indartzeko eta gure lurraldeko ekoizpen eta gastronomia ondarearen gaineko sentsibilizazio ikuspegi bat txertatzeko asmoz, Slow Food - Arabako Conviviumek antolaketa eta Ekoizleen Hautaketa Batzordean parte hartzen du.

Azoka Gasteizko unibertsitate campusean egingo da.

Bitarteko honen bidez, deialdi publikoa egiten zaie azokan erakusle edota saltzaile lanetan parte hartu nahi duten ekoizleei.

Produktua merkaturatu ordez beren jarduera (ganadua, landa elkarreak, makina zaharrak edo bestelako jarduerak) erakutsi nahi duten beste erakusle batzuk deialditik kanpo geratuko dira; horiek, azokan egon ahal izateko, antolatzaileen gonbidapena jaso behar dute.

Administrazio publikoen laguntzak edo prestazioak ematerakoan, publizitatearen, gardentasunaren, lehiaketaren, objektibitatearen, berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak bete behar dira. Bada, printzipio horiek betetzen direla bermatzeko, Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azokako parte hartzaileen hautaketa sistema ezarri da, ebazpen honekin batera doazen oinarrietan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aginduzko txostenak aztertu dira; horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Santiagoko 2019ko Azokan erakusle edota saltzaile gisa parte hartu nahi duten nekazari eta abeltzaintzako deialdi publikoko oinarriei, zeinak ebazpen honi erantsi baitzaizkio.

Bigarrena. Eskeraerak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 28an amaituko da.

Hirugarrena. Foru agindu hori ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 4a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

SANTIAGOKO 2019KO NEKAZARITZA AZOKA

EKOIZLE ETA ERAKUSLE LANETAN PARTE HARTZEKO DEIALDI PUBLIKOA

1. Salgaien ekoizleek eta erakusleek bete beharreko betekizunak

1.1. Ekoizleek eta erakusleek hauetako baldintzaren bat bete beharko dute:

– Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrean edo Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorrean erroldatua dagoen nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategi bateko kide izatea.

– Nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten kooperatiba edo elkarteetako kide edo langile izatea, baldin eta nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategietaoak badira kooperatiba edo elkarte horietako bazkiderik gehienak. Taldea edo taldeko bazkide diren ustiategiak Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrean edo Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorrean erroldatuta egongo dira.

– Artisau elikagaien edo elikagai maneiatu edo eraldatuen ekoizkinek hauek bete beharko dituzte:

– Ekoizle eta erakusleak Arabako Lurralde Historikoan egiten du produktuaren maneiaketa edo eraldaketa.

– Ekoizpenean erabiltzen diren lehengaiak batez ere ustiategian bertan ekoizitakoak dira. Salbuetsi egingo dira ogia, gozokiak, hestebeteak eta garagardoa.

– Nekazaritza elikagaien artisau enpresako langileen artean familia barruko langileak kanpokoak baino gehiago izango dira.

Antolatzaileek berariaz gonbidatu ahal izango dituzte ekoizleak, nahiz eta horiek aurreko betekizun guztiak ez bete, baldin eta haien ekoizkineen berezitasuna dela-eta interesekoak badira.

1.2. Horiez gain, ekoizleek eta erakusleek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Zerga egoitza Araban izatea.

– Azokan beren ustiategian ekoizitakoak edo artisau jardueran egindako ekoizkinak erakutsi eta salduko dituzte soilik.

– Saltokiaren ardura duten pertsonak ustiategiko, taldeko edo enpresako kide izango dira.

– Saltokiaren ardura duten pertsonak elikagaien manipulatuak txartela edo haren baliokidea den higiene edo osasun prestakuntza ziurtagiria izango dute.

– Antolatzaileek zehaztutako ordutegian izango dira saltokian.

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

– Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguria izatea.

– Salgai diren produktuak arautzen dituen araudiak finkatutako betekizunak betetzea.

– Aplikagarri diren arau teknikoak eta sanitarioak betetzea, bai salgai diren produktuei bai instalazioei dagozkienak.

– Eskaera beteko dute parte hartzeko, bai eta betekizunak betetzen dituztela adierazten duen zinpeko aitortpena ere. Zinpeko aitortpenean adierazitakoa ez betetzeak berekin ekarriko du hurrengo azoketan parte hartzeko ez onartzea.

2. Parte hartzaileak hautatzea

Finkatutako epearen barruan jasotzen diren eskaera guztiak onartuko dira, baldin eta onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte eta produktu mota bakoitzerako finkatu den gehieneko erakusle kopurua gainditzen ez bada.

Arabako produktu esanguratsu guztiek parte hartzen dutela bermatzeko, eta postuen kopurua dagoen lekua arabera mugatzeko asmoz, ondoko parte hartze mugak ezarriko dira produktu motaren arabera:

PRODUKTU MOTA	ERAKUSLE KOPURUA GEHIENEZ
Olioa	4
Behi eta zaldi haragia eta eratorriak	5
Barraskiloak	1
Txerri hestebeteak eta odolosteak	2
Arabako Errioxako ardoa, Errioxa JDkduna	4
Araba JDko txakolina	4
Sagardoa edo sagar ura	3
Garagardoa	2
Patatak eta ortuariak	7
Lekaleak	4
Gatza	1
Eztia	3
Idiazabal JDko gazta	10
Beste gazta batzuk	4
Eskualdeko salgaiak	3
Ogia eta gozokiak	9
Guztira	66

Deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaera egileen gehieneko kopurua txikiagoa bada Hautaketa Batzordeak aurreikusitako kopurua baino, epe barruan eskaera egin ez duten baina betekizunak betetzen dituzten arabar ekoizleak gonbidatu ahalko dira. Prozedura horren bidez ere kupoa beteko ez balitz, beste ekoizkin mota batzuen ekoizle kopurua handitu egin ahal izango litzateke, aurreko mugak gainditu arren.

Gainera, Hautaketa Batzordeak ekoizleak gonbidatu ahal ditu, baldin eta onartuak izateko deialdian ezarritako betekizunak bete ez arren bereziki interesgarritzat jotzen baditu, esaterako ezaugarri hauek betetzen dituztelako, besteak beste:

- Araban berria den ekoizpena.
- Artisau erako ekoizpena, desagertzeko arriskuan dagoena, gure elikadura ondarea eta gure askotarikotasuna aberasten dituena.
- Merkatu ekologikoan edota tokiko merkatuan ikuspegi berriak aurkezten dituzten ekoizpenak.

Jasotako eskaera kopurua deialdirako eskuragarri dagoen saltoki kopurua baino handiagoa bada, bai orokorrean bai produktu mota bakoitzeko, Batzorde Antolatzaileak eskaerak baloratu eta lehentasun irizpideak aplikatuko ditu, 4. idatz zatian finkatutakoa betez. Puntuazio handiena lortzen duten eskaerak hautatuko dira, eskuragarri dagoen saltoki kopurua gainditu gabe.

3. Ekoizleen Hautaketa Batzordea

Aurreko 1. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskatzaileen artean Santiagoko 2019ko Azokan ekoizle, erakusle eta saltzaile zereginetan parte hartuko duten pertsonak hautatzeko, hautaketa batzorde bat eratzen da, kide hauek osatua:

- Nekazaritza Sustapenaren Atalaren burua.
- Abelazkuntza Atalaren burua.
- Nekazaritza Zuzendaritzako teknikari bat.
- Slow Food -Arabako Conviviumeko lehendakaria.

4. Hautaketa irizpideak

Arauzko eskaera eta zinpeko aitortpena Nekazaritza Zuzendaritzara epe barruan bidaltzen dituzten eskatzaileen artean, lortzen duten puntuazioaren arabera hautatuko dira (handienetik txikienera), azokako parte hartzaileak eta ordezkioak zehaztu ahal izateko, irizpide hauek erabiliz:

1. Kalitate bereiziko marka ziurtatua edukitzea: 8 puntu.
2. ENEEKeko Nekazaritza Ekologikoko Eragileen Zentsuan izena emanda egotea: 8 puntu.
3. Tokiko produktu tradizionala edukitzea, bertako espezie eta arrazekin egina, eta artisautzakoak diren edo industrialak ez diren metodoen bitartez: 7 puntu.
4. Ustiatetik titularra emakumea izatea: 5 puntu.
5. Nekazaritza ustiatetik titularra nekazari gaztea izatea (41 urtetik beherakoa): 5 puntu.
6. Hautatzen den produktu motaren taldean Arabako zazpi kuadrilletakoren batean dagoen nekazaritza ustiatetik bakarria hori izatea: 3 puntu.

Salgai bera dela eta puntu kopuru bera lortuz gero, zozketa egingo da, eta esleipendun ez dena ordezkio geratuko da.

5. Erakusketaren eta salmentaren baldintzak

Antolatzaileek erabakiko dute zein postu hartuko duen erakusle bakoitzak.

Hautatzen diren ekoizleak edo, bestela, dei egiten zaien ordezkio pertsonak bakoitzari dagokion postuan egon behar dira, produktua erakusten (eskainitako produktu guztiak amaitu ezean), azoka egiten den eguneko 10:00etatik 14:30era.

Santiagoko Nekazaritza Azoka egiten den urteko uztailaren 25eko 9:00ak baino lehen azokan egon behar dira erakusleak, esleitu zaien postua prestatzeko.

– Saltoki bakoitzak toki ikuserrazean izango du osasun erregistroa edo baimen sanitarioa, halakorik eskatzen duten salgaiak izanez gero.

– Salgai bakoitzak bere salmenta prezioa izango du edo, bestela, kartel bat jarriko da toki ikuserrazean saltokiko salgai guztien prezioekin.

– Bildu edo paketatu gabeko salgaiak eskaintzen badira, hala nola gozokiak, salgaiak babesteko sistemaren bat izango da, ikusleek kutsa ez ditzaten.

6. Eskaera aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

6.1. 2019ko ekainaren 28ra arteko epea ezartzen da eskaerak aurkezteko.

6.2. Eskaerak inprimaki normalizatuan egingo dira, zeina Nekazaritza Saileko web orrian egongo baita eskuragarri, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo eskualdeetako nekazaritza bulegoetako erregistroetan aurkeztuko dira.

6.3. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

- Jarduera komertzialaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruua.
- Produktuen osasun erregistroa edo baimen sanitarioa (halakorik behar izanez gero).
- Elikagaiak manipulatzeko higiene edo osasun prestakuntza duela egiaztatzen duen agiria.
- Nekazaritza Sailari ez bazaio baimenik ematen zuzenean lortzeko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria.

7. Produktua salduko duten ekoizle eta erakusleak zehaztea

Hautaketa Batzordeak produktu mota bakoitzeko parte hartzaileak hautatuko ditu. Ordezkoak ere hautatuko ditu (parte hartzaileen kopuru berean), hautatutako pertsonak ordezkatzeko, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzari azokara ez direla joango jakinarazten badiote 2019ko uztailaren 15a baino lehen.

Santiagoko Nekazaritza Azokako produktuen ekoizle eta erakusleak hautatzeko proposamena egiten denean, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru aginduz zehaztuko da zeintzuk izango diren pertsona horiek eta, hala badagokio, zeintzuk ordezkoak produktu motaren arabera.

Ekoizleen Hautaketa Batzordeak sasoiz jakinaraziko die eskatzaileei hautatuen zerrenda.

8. Saltokirik onenaren lehiaketa

Saltokirik onenaren lehiaketa jartzen da abian, non hauek balioetsiko diren, besteak beste: saltokiaren diseinuaren originaltasuna, salgaiaren aurkezpena, argibideetan eta etiketetan gardentasuna eta saltzailearen janzkera.